

EHUko IKASLE KONTSEILUAK NABARMENTZEN DU PALESTINAREKI KO GREBAREN JARRAIPEN ZABALA ETA BERRIRO ADIERAZTEN DU BAKEAREN ETA BIZIKIDETZAREN ALDEKO KONPROMISOA

Puede leer la nota en castellano [aquí](#).

Leioa, 2025eko urriaren 15a – Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ikasle Kontseiluak oso modu positiboan baloratu du Palestinarekiko elkartasunean deitutako greba eta etenaldi akademikoaren jarraipena. Beste behin ere, EHUko ikasleek erakutsi dute giza eskubideen defentsarekin, justizia internazionalarekin eta bakearekin duten konpromisoa, hiru Campusetan egindako mobilizazioetan modu masibo eta eredugarrian parte hartuz.

Hala ere, Ikasle Kontseiluak gaitzetsi egiten du, beti egin duen bezala, unibertsitatearen ondarearen aurkako edo bide baketsuetatik urruntzen den edozein gertakari edo ekintza. Hala ere, gogorarazi nahi du kasu puntualetaz ari garela, eta ezin dutela ikasleen protesta legitimoa deslegitimatatu behar, izan ere, ikasleen gehiengo handiaren parte-hartzea arduratsua, errespetuzkoa eta konbentzituza izan da, eta egun honek argi utzi du gure unibertsitatearen elkartasuna palestinar herriarekin.

EHUko Ikasle Kontseiluak berriro berresten du giza eskubideen defentsarekin, protesta baketsuaren eskubidearekin, Campusetako bizikidetzarekin eta gizartearen eraldaketarako elkarriketaren aldeko konpromisoa.

EHUko Ikasle Kontseilua
Consejo de Estudiantes de la EHU



Kontaktua:

ikasle.kontseilua@ehu.eus

94 601 2448

X: @IkasleKontseilu

Instagram: @ikaslekontseilu

Linkedin: www.linkedin.com/company/ikasle-kontseilua

www.ehu.eus/es/web/ikasle-kontseilua